

# KULTURKRITIKA

## » LIBURUA

### Bizi gara, bizi!



Amaia Alvarez Uribe



#### **Baionak ez daki**

BEA SALABERRI

Susa, 2015

Bea Salaberrrik bere *opera priman* idazleek gomendatzen dutena egiten du, hau da, literatura idazten hasteko inguruneari begiratu behar diogu begiak ondo zabalik ditugula eta gure koadernoan jaso interesatzen zaizkigunak. Honekin batera, idazlea izateko asko irakurri behar dela ere esaten dute. Besteek egin dutena ezagututa ereduak izateko eta idazteko era desberdinak ezagutzeko.

Inguruari begiratzeko lanean, etxean, lanean eta kalean gertatutakoak eraman ditu orriotara, eta egunerokotasunean topatu dituen printzak irakurlearekin partekatu. Modu honetan desautomatizaziorako gonbitea eta kontzienteki bizitzeko deia egin digu lan honekin.

Gure bizitzan oharkabean pasatzen zaizkigunak edo kultura eta tradizio batzuen oinordekotza transmititzen dizkigu 30 kontakizunotan. Alde batetik, zertzeladak eta inpresioak ditugu, eta beste alde batetik, genero eta klase hegemonikoen presentzia.

Salaberrrik ohiko une, toki eta objektuak begien aurrean ipintzen dizkigu haien eraginari edo presentziari buruzko gogoetak eginez. Adibidez, *Ortzia uda mineanen* udako ekaitzek ekartzen duten lur bustiaz ari da, *Biga bostetan Marengoran* Baionako kale batzuen artean kokatzen gaitu ematen dituzten aukerak aletuz, edo *Garbigailu-larsenen* etxeko soinu banda denari begira jartzen gaitu.

Honez gain, gure kulturako harreman, jokaera eta erritualei egiten die kasu, klase gatazkak edo pobrezia ondorioak agertuz eta kritika soziala eginez *Heroiak* narrazioan, edo familiaren egituraren pisua argitan jarritz *Bayonne 17n*, baita hilekoa nola bizi

duen azalduz *Corriaken*.

Esperientziak eta emozioak ere ekaritzen ditu memoriaren bidez, hala nola, haurretan hain bereziak diren zabuak edo txangoak eta hauek sorrarazten dizkiguten sententzioak *Gorgoinan* eta *Autobusan*, edota *Soroan hordiko* eta *Ator botoiako* zoriona eta gozamina.

Esan bezala, ingurutik jasotakoak konpartitzen ditu irakurleekin, baina honekin batera ere eredurik aipatzen du, bereziki Itxaro Borda. *Gasna* izeneko testuan idazle honen izena eta bere %100 *basque* liburuari erreferentzia egiteaz gain, liburuaren lehen narrazioaren izenburuan ere topa daiteke Bordaren estiloaren eragina. *Negarra begian* izenburua ipini dio euskal kantutegiko abesti ezagun bati erreferentzia eginez, Bordak bere detektibe nobela guztietan erabiltzen duen baliabidea.

Azkenean, liburu honek, *Zergatik ez?* narrazioan esaten duen moduan, "bizi garela sentitzeak du inporta", bestela esanda, bizi-tako horren jabe izateak. ■



Bea Salaberrri idazle baionesa Donamartirin sortua da, Nafarroa Beherean.